

'Hartza' eguneko koplen istorixia

Kalian jendia galdezka dakagu hartzaren nundik norakuaren gaiñian; zergaitxik Ermuan, noiztik... Beste behinobehin idatzi izan dogu honen gaiñian, baiña oinguan kontakizun osuena batzen ahalegindu gara.

Patxi Urko'ren koplei esker, gai-xorik euan Ermuko gazte bat sendatu eñ zan. Oin dala urte asko gertau zan, 1934 urtian, zuen aitxa-amamak be txikitxuak ziran urtian. Gazte bat tuberkulosisakin gaixotu zan; gaixotasun larrixa zan orduan denporetan eta mutila ia-ia hiltzearegon zan. Bere famelixakuak ez eken dirurik botikak erosi edo sendagilliarengana eruateko eta bere lagunak ideia bat izan eben: juan ziran Guillermo Bengoetxearen etxera, 'Guillermo Txindurri' moduan ezagututako bertsolari harengana, eta bertso bat idazteko eskatu zotsien. 'Txindurrik' Urko basarriko Patxiren istorixia gogoratu eta harekin lotutako 4 kopia idatzi zitxuan.

Gaztiaren lagun kuadrila guztixa batu eta bertsuok buruz ikasi zitxuezen, gero kalerik-kale abesteko asmoz. Aratuste sasoia zanez, ba pentsau eben 'koko jantzia' gaur eguneko berbekin moztortzia, disfrazatzia. Eta koko jantzeko



etxeko ganbara eta kutxa zaharretan begiratu ostian, jantzi erropa zaharren bat, kapelia buruan, pintxau arpegixa erretako kortxo zati batekin eta kitxo, kalera! Ez zitxuezen baiña ahaztu kitxarra, bibolin, tronpeta, turuta eta kanta papelok.

"Na na na nana nana na..." bertsuen arteko musika hori egiteko, orrazi batzuk eta erretzeko papela erabilli eben; ipiñi bata bestiari pegauta eta putz eñaz, orrazixaren bitxartietatik soiñua ateratzen eben.

Eta halantxek, musikia joaz eta 'Txindurriren' bertsuok abestuz, herriko peora dan-danetan diru-eskian ibilli ziran. Diru dextente batu gaiñera, 1000 pza. inguru ordukuak gogortzen dabenez; harek sasoiatarako

trongal, dirutza itzela!

Gerriakin eta ondorengo urtietako sasoi estuekin, kalerik-kale urtetzeko ohitxura hau galdu eñ zan, harik eta 1989. urtian Euskal Birusa Euskara Taldeak berreskurau eban arte. Harrezkeroztik, Eguen Zuri bixamonian, karnabal barixakuan herriko baztarrak musika eta bertsoz betetzen dira, hartza tartian dala.

Maria Bengoetxea Isasi-Isasmendi, 'Maria Txindurri' moduan ezagunaua dan andriari esker dakiguz honek bertsuok. Gaztetan aitxa Gillermoni entzun eta goguan hartutakuok, kantatzia gustatzen jakon. Bateron batek grabau eta jende artian zabaltzen hasi ziran eta gaur egun herriko heldu, gazte eta ume ugarik eza gutzen ditzuez.

Deba Barreneko Bertso Eskolako ikasliak, Guillermo eta Mariari omenaldi bat ein guran, bi bertso gehixao asmau zitxuezen eta gaur egunian 6 koplakin kantatzen dira "Mañako lezan sartuta euan priztiaren" gora-beherok.

Euskal Birusa


Noiz ospatuko da? Otsailaren 1ean, 18:00etan.

Non? Kalejira, plazatik irtengo da.

Nork har dezake parte? Herriko jende guztiak parte har dezake eta Euskal Birusak txapel beltza, zapi laukiduna eta bakeroak janztera animatzen du jendea.

Nork antolatzen du? Euskal Birusak, Anaitasuna ikastolak, Anaitasuna ikastola Institutuak, Kaltxango AEK Euskaltegiak, Udal Euskaltegiak, Deba Beheko Bertso Eskolak, Eskolabarrik, Alboka Musika Eskolak eta Ermuko Udalak.


ELEKTRAGAILUENTZAKO ZERBITZU TEKNIKOA



EGANEA
ALDAGAILUAK

GARBIGAILUAK - SUKALDEAK - HOZKAILUAK
LEHORGAILUAK ETA BEROGAILU ELEKTRIKOAK

DIPUTAZIOA 7 # TLF. 943 17 66 08 # ERMUA
BIDEBARRIETA 33 # TLF. 943 70 28 33 # EIBAR



**MUSIKA
ESKOLA**

- | | |
|----------------------|--------------|
| - Akordeoia | - Klarinetea |
| - Biolina | - Panderoa |
| - Biolontxelo | - Perkusioa |
| - Bonbardino | - Pianoa |
| - Flauta | - Saxofoia |
| - Kantua | - Trikitrixa |
| - Gitarra | - Tronboia |
| - Gitarra elektrikoa | - Tronpeta |
| - Gitarra baxua | - Txistua |
| - Lengoia musikala | |

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com